

GOBERNU BATZARRA

2009. 06. 15

Alkatea:

Jokin Bildarratz Sorron

Zinegotziak:

**Olatz Peon Ormazabal
Jokin Azkue Arrastoa
Andoni Iturzeta Arbillaga
Onintza Lasa Arteaga**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila bederatziko ekainaren hamabostean, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeke.

1.-Aurreko akta onartzea.

2.-Aitzol Udal Euskaltegia: Iraileko publizitate kanpaina.

3.- Kontseilua.

4.-Aprobación de la 5ª Certificación de Dirección de obra "Reforma y Rehabilitación del edificio 1-A de la Plaza Euskal Herria de Tolosa.

5.-Aldabako Plan Berezia egiteko lanen adjudikazioa/ Adjudicación de los trabajos de redacción del Plan Especial de Aldaba.

6.-Adjudicación de la reurbanización de las calles transversales del Casco Antiguo.

7.- TIZ. Kontratoaren luzapena.

8.-Voith-Gorostidi eremuko babes ofizialeko etxebizitzaren behin behineko zerrendeiri buruzko alegazioak ebaztea, onartu eta baztertuen zerrendak behin betiko eta etxebizitzaren adjudikaziorako zozketa prozedura onartzea.

9.-Ibilgailuen zerga: M.I.J.I.ren eskaera/ Impuesto de vehículos: Solicitud de M.I.J.I.

10.-Aitz ondo: Zaborraren Tasan alta/ Alta basuras: Aitz ondo.

11.- 12.zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2009ko ekainaren 8an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Aitzol Udal Euskaltegia: Iraileko publizitate kanpaina.

Gaia Euskara eta Hezkuntza departamentura itzultzen da, Alkatetza dekretuaren bidez gaia bideratzeko, eskumena alkateari baitagokio.

3.- Kontseilua.

Euskara eta Hezkuntza batzordeak proposatutakoarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenen baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Orain arte bezala, Kontseiluari 6.000€ko dirulaguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta Kontseiluari.

4.- Aprobación de la 5ª Certificación de Dirección de obra “Reforma y Rehabilitación del edificio 1-A de la Plaza Euskal Herria de Tolosa.

Vista la factura presentada por el estudio de arquitectura y urbanismo Antón Pagola y Asociados SLP-Xlark-, correspondiente a la 5ª certificación de la dirección de obra de la “Reforma y rehabilitación del edificio 1-A de la Plaza Euskal Herria de Tolosa” y cuyo importe total, IVA incluido, asciende a la cantidad de 40.191,34€, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aprobar el abono de la factura reseñada en la parte expositiva del presente acuerdo.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a los departamentos de Intervención, Obras y Servicios y al Estudio de Arquitectura y Urbanismo Antón Pagola y Asociados SLP- Xlark-.

5.-Aldabako Plan Berezia egiteko lanen adjudikazioa/ Adjudicación de los trabajos de redacción del Plan Especial de Aldaba.

Ikusirik Aldabako Plan Berezia idazteko laguntza eta aholkularitza lanen adjudikazioa egiteko proposamena, Kontratazio Mahaiak egin duena, eta Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Vista la propuesta de adjudicación de los trabajos de asistencia y consultoría para la redacción del "Plan Especial de Aldaba" formulada por la Mesa de Contratación, y de conformidad con el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.- Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta behin-behineko izaerarekin adjudikatzea Vaumm Arkitektura y Urbanismo, S.L.ri honako lan hauek: Aldabako Plan Berezia idazteko laguntza eta aholkularitza, hurrengo baldintza hauetan:

PRIMERO.-Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar provisionalmente a Vaumm Arkitektura y Urbanismo, S.L., los trabajos de asistencia y consultoría para la redacción del Plan Especial de Aldaba, en los siguientes términos:

Prezioa: 17.388,40 € (BEZ barne)

Precio: 17.388,40 € IVA incluido.

Prezioaren atalak, kontratuaren faseen arabera, hurrengo hauek dira:

El desglose del precio según las fases del contrato es el siguiente:

Hasierako onespén fasea: 12,171,88 € (BEZ barne)

Fase de aprobación inicial: 12,171,88 (IVA incluido)

Behin betiko onespén fasea: 5.216,52 € (BEZ barne)

Fase de aprobación definitiva: 5.216,52 (IVA incluido)

Epea: 18 aste:

Plazo: 18 semanas:

Hurrengo epe hauetan banatuta:

Desglosado en los siguientes plazos:

Hasierako onespén fasea:

Fase de aprobación inicial:

Plan berezia idaztea hasierako onespénarako: 8 aste.

Redacción del plan especial para la aprobación inicial: 8 semanas.

Prestatzea eta jardutea Hirigintza Planeamenduko Aholku Kontseiluaren aurrean eta fase honetarako aurreikusten eta ezartzen diren parte

Preparación e intervención ante el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico, así como, en el caso de que se estime conveniente por el

hartze foroetan, Kontseiluak komenigarritzat joz gero. Aurreikusitako epea: 2 aste.

Testu bategina idaztea, hasierako onespina jaso dezan, baldin eta beharrezkoa bada, Hirigintza Planeamenduko Aholku Kontseiluak proposatutakoaren ondorioz edo, hala badagokio, herritarren parte hartze prozesuaren ondorioz: 2 aste.

Planaren hasierako onespinen eta erakusketa publikoaren ondoriozko alegazio eta txosten sektoriale buruzko txostena idaztea: 2 aste

Behin betiko onspen fasea:

Dokumentu bategina edo bateginak idaztea behin betiko onspina emateko, baldin eta beharrezkoa bada, gainontzeko administrazio eskudunek egindako alegazio edo txostenak ontzat jotzearen ondorioz: 4 aste

Kasua bada, prestatzea eta jardutea Hirigintza Planeamenduko Aholku Kontseiluaren aurrean eta fase honetarako Kontseiluak aurreikusten eta ezartzen dituen parte hartze foroetan: 1 aste

BIGARRENA.-Behin-behineko adjudikazioa jakinaraztea adjudikaziodun gertatu ez diren lizitatzailer guztiei.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren behin-behineko adjudikaziodunari jakinaraztea eta errekeritzea aurkezteko, behin-behineko adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo hamabost laneguneko epearen barruan, behin betiko bermea, 749,50 eurokoa.

Consejo, en los foros de participación ciudadana que se prevean y establezcan para esta fase. plazo estimado: 2 semanas.

Redacción del documento refundido para la aprobación inicial, en caso de ser necesario como consecuencia de los que se proponga por el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico o tras el proceso de participación ciudadana, en su caso: 2 semanas.

Redacción de informe sobre las alegaciones e informes sectoriales habidos, tras la exposición pública una vez aprobado inicialmente el Plan 2 semanas

Fase de aprobación definitiva:

Redacción del documento o documentos refundidos para la aprobación definitiva, en caso de ser necesario como consecuencia de la estimación de alegaciones o informes de otras administraciones competentes: 4 semanas

En su caso, preparación e intervención ante el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico o en los foros de participación ciudadana que, por decisión del Consejo, se establezcan para esta fase 1 semana

SEGUNDO.- Notificar la adjudicación provisional a todos los licitadores que no han resultado adjudicatarios.

TERCERO.- Notificar el acuerdo y requerir al adjudicatario provisional del contrato para que presente, dentro de los quince días hábiles siguientes al de la fecha de publicación de la adjudicación provisional en el Perfil del Contratante, la garantía definitiva por importe de 749,50 euros.

LAUGARRENA.- Kontratuaren behin-behineko adjudikazioa argitaratzea kontratatzailearen profilean, dagokion iragarkia jarrita.

BOSGARRENA.-Behin-behineko adjudikazioa automatikoki behin betiko bihurtzea, kontratistak, 15 laneguneko gehieneko epearen barruan, aurreikusitako jarduketak gauzatzen dituen unean. Betebehar hori gauzatzen denean, aipatu buletinean publikatzea behin betiko adjudikazioa.

CUARTO.- Publicar la adjudicación provisional del contrato mediante anuncio en el Perfil del contratante.

QUINTO.-Establecer que la adjudicación provisional quedará elevada automáticamente a definitiva, desde el momento en que, dentro del plazo máximo de 15 días hábiles, el contratista lleve a cabo las actuaciones previstas. Cumplido el requisito, publicar la adjudicación definitiva en el mencionado Boletín.

6.- Adjudicación de la reurbanización de las calles transversales del Casco Antiguo.

Atzoko egunaz Kontratazio Mahaiak, Alde Zaharreko zeharkako kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obren adjudikazioa proposatzeko eratuak, egindako proposamena ikusita, eta Hirigintzako batzordeak honi buruz jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta behin-behineko izaerarekin adjudikatzea Kakueta S.L.ri Tolosako Alde Zaharreko zeharkako kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obren exekuzioa, hurrengo ezaugarri hauekin:

Prezioa: 396.016,45 € (BEZ barne)

Epea: Hiru (3) hilabete.

Fakturazioari dagokionez, hauxe adierazi behar da:

Vista la propuesta realizada por la Mesa de Contratación constituida para proponer la adjudicación de las obras contenidas en el proyecto de "Reurbanización de las calles transversales del Casco Antiguo", y de conformidad con el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar provisionalmente a Kakueta, S.L., la ejecución de las obras contenidas en el proyecto "Reurbanización de las calles transversales del Casco Antiguo de Tolosa, en los siguientes términos:

Precio: 396.016,45 €(IVA incluido)

Plazo: Tres (3) meses.

Respecto a la facturación, señalar lo siguiente.

- 1.-Gasa Tolosa Gasari fakturatuko zaio.
- 2.-Horniketa eta saneamendua Gipuzkoako Urak, S.A.ri
- 3.- Elektrizitatea Tolargi, S.L.ri

BIGARRENA.- Adjudikaziodun gertatu ez diren lizitatuak guztiei behin-behineko adjudikazioa jakinaraztea eta, era berean, behin-behineko fidantza itzultzea.

HIRUGARRENA.-Kontratuaren behin-behineko adjudikaziodunari, Kakueta S.L.ri, jakinaraztea eta errekeritzea aurkezteko, behin-behineko adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo bost laneguneko epearen barruan, batetik, behin betiko bermea, 17.069,67 eurokoa, eta, bestetik, zergen eta Gizarte Segurantzaren obligazioak eguneratuta dituela egiaztatzen duten agiriak.

LAUGARRENA.-Kontratuaren behin-behineko adjudikazioa argitaratzea kontratatzailearen profilean, dagokion iragarkia jarritz.

BOSGARRENA.- Behin-behineko adjudikazioa automatikoki behin betiko bihurtuko da, kontratistak -5 laneguneko gehienezko epearen barruan, kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik- aurreikusitako jarduketak gauzatzen dituen unean. Eginbehar hori betetzen denean, Alkatetzaren eskuetan geratuko da behin betiko adjudikazio erabakia hartzea.

1.-El gas se facturará a Tolosa Gasa.

2.-El abastecimiento y saneamiento, a Gipuzkoako Urak, S.A..

3.- La electricidad, a Tolargi, S.L..

SEGUNDO.- Notificar la adjudicación provisional a todos los licitadores que no han resultado adjudicatarios, y devolver la fianza provisional a los mismos.

TERCERO.- Notificar el acuerdo y requerir a Kakueta, S.L., adjudicatario provisional del contrato, para que presente, dentro de los cinco días hábiles siguientes al de la fecha de publicación de la adjudicación provisional en el Perfil del contratante, la garantía definitiva por importe de 17.069,67 euros, así como los certificados acreditativos de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

CUARTO.- Publicar la adjudicación provisional del contrato mediante anuncio en el Perfil del contratante.

QUINTO.- Señalar que la adjudicación provisional quedará elevada a definitiva, desde el momento en que dentro del plazo máximo de 5 días hábiles, a contar desde la publicación en el perfil del contratante, el contratista lleve a cabo las actuaciones previstas. Cumplido este requisito, se delegará en Alcaldía el acuerdo de adjudicación definitiva.

7.-TIZ. Kontratoaren luzapena.

Datorren uztailaren 30ean bukatuko da Artelatz eta Galemisekin sinatutako kontratua lehen luzapena ingurumen Zentroa kudeatzeko.

Gauzak horrela, Agenda 21 Partaidetza eta Ingurumen batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Artelatz eta Galemys enprekin sinatutako kontratua luzatzea 2010 urteko uztailaren 30arte, ondorengo puntuak kontuan izanda:

- a) Eskola Agenda 21eko lan guztiak kontratuaren prezioaren barruan egingo dira.
- b) Kontratuari EAEko urtearteko KPlaren igoera aplikatuko zaio.
- c) Zentrotik ordaintzen diren gastu txikiak zerbitzua ematen duten enpresa batek fakturatu beharko dizkio Udalari.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Agenda 21 Partaidetza eta Ingurumen departamentuari, eta Artelatz eta Galemys enpresei.

8.-Voith-Gorostidi eremuko babes ofizialeko etxebizitzaren behin behineko zerrendei buruzko alegazioak ebaztea, onartu eta baztertuen zerrendak behin betiko eta etxebizitzaren adjudikaziorako zozketa prozedura onartzea.

2009ko maiatzaren 11n, Gobernu batzordeak Voith-Gorostidi eremuko Babes Ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartu zituen, baita Behin-behineko zerrendak informazio publikoan jarrita edukitzea udaletxeko iragarki-taula eta web orrian 15 lanegunetako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen zenetik kontatzen hasita, interesatuek egokitzen jotzen zituzten erreklamazioak aurkez zituzten.

Erreklamaziotarako epe honetan lau alegazio aurkeztu dira. Halaber, behin-behineko onartuen zerrendetatik, 4 eskatzaileek borondatezko baja eskaera luzatu dute, hauetatik batek epeaz kanpo aurkeztu badu ere.

Bestalde, Babes Ofizialeko behin-behineko zerrendatan onartuak zeuden bi eskatzaileek Voith-Gorostidi esparruko etxebizitza tasatuen salerosketa kontratua sinatu dutela jakinarazi dute etxebizitza tasatuen promotorak.

Hori guztia aztertutik, alegazioei, borondatezko baja eskaerei eta salerosketa kontratua sinatu duten eskatzaileei buruz aurkeztutako txostenak aztertu ondoren, banan-bana ebatzi dira.

Halaber, Voith-Gorostidi esparruko Babes Ofizialeko etxebizitzaren zozketa egiteko irizpideei buruz egindako txostena aztertu da.

Horiek horrela, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin-behineko baztertuen eskatzaileen zerrendetatik aurkeztu diren lau alegaziotatik bi onartzea eta gainontzekoak baztertzea, bakoitzaren txostenean agertzen den arrazoiengatik.

BIGARREN.- Araututako prozeduraren arabera era egokian aurkeztu diren hiru borondatezkoa baja eskaerak onartzea, baita epez kanpo aurkeztutakoa ere.

HIRUGARREN.- Voith-Gorostidi esparruko etxebizitza tasatuen salerosketa kontratua sinatu duten hiru adjudikatarioak, Babes Ofizialeko behin-behineko onartuen zerrendetatik, baldintzak ez betetzeagatik, ofizioz, baztertzea.

LAUGARREN.- Voith-Gorostidi esparruko Babes-Ofizialeko etxebizitzaren behin-betiko onartu eta baztertuen zerrendak onartzea eta udaletxeko iragarki taulan jartzea, bide administratiboari amaiera emanaz.

BOSGARREN.- Adieraztea interesatuei zerrendak inpugnatu ahal izango dituztela, berraztertze errekurtsoa jarriaz hilabeteko epean, edo Administrazioarekiko Auzi errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Administrazioarekiko auziak arautzen dituen 1998ko uztailaren 13ko Legeak ezartzen duen moduan eta bi hilabeteko epean.

SEIGARREN.- Proposatutako prozedura onartzea. Laburbilduz prozedura ondorengo hau da:

Zozketa baino lehen, Zenbakiak emango dira. Horretarako bizikidetza unitatea nola osatua dagoen kontutan hartuko delarik: oro har eskabide bakoitzari zenbaki bakar bat esleituko zaio; bikoteek izenpetutako eskabideei, eta beren kargura seme-alaba adingabeak edo beren tutoretzapeko pertsonak barnean hartzen dituzten eskabideei, bi zenbaki bi zenbaki. Azkenik, beren kargura seme-alaba adingabeak edo beren tutoretzapeko pertsonak barnean harturik bikoteek izenpetutako eskabideei hiru zenbaki esleituko zaizkie.

Hiru zerrenda egingo dira, bereiztu diren kupo edo taldeen arabera:

- a) mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonak,
- b) 35 urtetik beherako bizikideak (oinarriak onartu ziren garaian)

c) gainontzekoak, kupo orokorra osatuko dutenak.

Zozketarako onartuak izan diren eskatzaile guztiei zozketarako esleitu zaizkien zenbakiak jakinaraziko zaizkie, baita zozketarako eguna eta ordua.

Lehenengo zozketa publikoa: Talde edo kupo bakoitzean, etxebizitzaren esleipendunak hautatzeko lehenengo zozketa bat egingo da. Zozketa egiteko bonboak edo loteria ontziak erabiliko dira. Bertan kupo bakoitzean parte hartuko duten eskatzaileei esleitu zaizkien zenbaki guztiak sartuko dira eta kupo bakoitzari dagokion etxebizitza adina zenbaki aterako dira banan-bana. Ondoren, gainontzeko zenbaki guztiak aterako dira eta itxaron-zerrenda osatuko da eta hautatu gabe geratzen diren eskabideak, talde bakoitzean dagokion **itxaron-zerrenda** osatuko dute.

Hautatutako eskabide bakoitzaren etxebizitza zehatzaren esleipena, **aurrerago**, Notario aurreko **bigarren zozketa** bidez egingo da, bizikidetzaren unitatea etxebizitzaren azalerari egokitzen dela kontuan hartuz.

ZAZPIGARREN.- Erabaki honen berri interesatuei eta Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzaren informaziorako bulegoko arduradunari ematea.

9.- Ibilgailuen zerga: M.I.J.I.ren eskaera/ Impuesto de vehículos: Solicitud de M.I.J.I.

2009ko ekainaren 8an, M.I.J.I.-ek eskatu du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena 6001-GLZ ibilgailuan, minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-M.I.J.I.-ren izenean matrikulatutako 6001-GLZ ibilgailuari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaieko

El 8 de junio de 2009, M.I.J.I. ha solicitado la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 6001-GLZ, por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 6001-GLZ,

Zergaren salbuespena ematea, 2010etik aurrera.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

matriculado a nombre de M.I.J.I. con efectos a partir del año 2010.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y a la interesada.

10.- Aitz ondo: Zaborraren Tasan alta/ Alta basuras: Aitz ondo

2009ko ekainaren 8an, M.M^o.A.-k, Aitz-Ondo-ren izenean, Inpernu kalean dituen etxebizitzien zaborraren tasaren agiriak deuseztatzeko eskatu zuen, izan ere, oraindik ez daude salduta eta ez dute zabor-bilketaren zerbitzua erabiltzen.

Gai hau argitzeko, uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau Erregulatzailerako behar dugu. Bertan, 20.1 artikuluko Tasaren definizioa eta eskagarritasunaren baldintzak aztertzen ditu, zerbitzu publiko bati lotua baitago, eta ondoren, tasa kobratzeko suposamenduak aztertzen dira. Horien artean, 20. artikuluko 3.s) atalak zabor-bilketaren zerbitzuaren tasa jasotzen du. Foru Arauak emandako aginduak jarraituaz, Tolosako Udalak Zerbitzu Publikoak eskaini eta Jarduerak burutzeagatiko Tasen Ordenantza onartu zuen. Ordenantza honetako 2.1.6 Eranskinak Zaborraren Tasa aztertzen du.

Erregulazio horretatik ondorioztatzen da eskuartean dugun tasaren eskagarritasuna zerbitzua ematearekin lotuta dagoela, hau da, zerbitzua erabili ahal izatearekin, baina ez du zerikusirik tasaren subjektu pasiboak zerbitzuaz egiten

El 8 de junio de 2009, M.M^o.A., en nombre y representación de Aitz-Ondo, ha solicitado que se anulen los recibos de basura de las viviendas de su propiedad sitas en Inpernu kalea, ya que todavía no están vendidas y no hace uso de la prestación del servicio.

Para resolver esta cuestión debemos partir de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, cuyo artículo 20.1 marca la definición de Tasa y las condiciones de exigibilidad de la misma, vinculada a la prestación de un servicio público, señalando a continuación una serie de supuestos susceptibles de sometimiento a Tasa, entre los que recoge, en el apartado 3.s) del citado artículo 20, el servicio de recogida de residuos sólidos. En cumplimiento de las prescripciones de dicha Norma Foral, el Ayuntamiento aprobó la correspondiente Ordenanza Reguladora de Tasas por prestación de Servicios Públicos y realización de actividades, en cuyo Anexo 2.1.6. se recoge la Tasa por servicio de basuras.

De dicha regulación se desprende que la exigibilidad de la Tasa que nos ocupa se vincula con la prestación misma del servicio, esto es, con la posibilidad de hacer uso del mismo, pero con total independencia del grado de uso del referido servicio que el sujeto pasivo de

duen erabilera mailarekin. Hori horrela, erabilpen zehatza ez da garrantzitsua tasa kobratzeko garaian.

Zentzu honetan, Auzitegi Gorena askotan mintzatu da, 2004ko otsailaren 24ko sententzian esate baterako: "Hondakin solidoak ezabatzeko tasa edo zaborraren tasa kobratzeko garaian, ez da derrigorrezkoa zergadunak zaborra edo hondakin solidoak sortzea zergadunak zerga kuota ordaintzeko obligazioa izateko; izan ere, tasaren egitate zergagarria lotuta dago zerbitzua erabili ahal izatearekin, eta zerikusirik ez dauka interesatuak zaborra, hondakinak edo zakarreria sortu ez izanak.

Beraz, etxebizitzak saldu ez izanak eta zerbitzua erabili ez izanak ez du esan nahi Tasa ordaindu behar ez duenik.

Ondorioz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez onartzea jarritako errekurtoa eta beraz, ez deuseztatzea Inpernu kalean Aitz Ondo-k dituen etxebizitzaren zaborraren tasaren agiriak.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

la tasa efectúe, de modo que la utilización concreta no resulta relevante para determinar su exacción. En este sentido, es doctrina reiterada del Tribunal Supremo, como puede verse en sentencias como la de 24 de febrero de 2004, que "en la Tasa de recogida de basuras o de eliminación de residuos sólidos, no es precisa la generación de aquéllas o de éstos por parte de los contribuyentes para que se genere la obligación de abonar la cuota tributaria de la misma, pues lo determinante de su hecho imponible es la posibilidad de hacer uso de tal servicio, con abstracción de que el interesado afectado no haya contribuido o no haya podido contribuir a la generación de dichos residuos, basuras o desperdicios."

Por lo tanto, el hecho de que no haya vendido las viviendas y no haga uso de la prestación, no le exime del pago de la Tasa.

Consecuentemente, a la vista de la expuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Desestimar el recurso interpuesto y, por lo tanto, no anular los recibos emitidos en concepto de basuras a las viviendas sitas en Inpernu kalea cuyo propietario es la empresa Aitz Ondo.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y a Aitz Ondo.

11.- 12. zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak 12. faktura-zerrendak aurkeztu du, 255.239,94 €-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Aipatutako 12. faktura-zerrendak onartzea.

BIGARREN.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA